

12/2015 Foru Dekretua, apirilaren 21ekoa, Gipuzkoako Lurralde Historikoan mendekotasun egoeran dauden pertsonen egoitzetan aldi baterako egonaldiak egiteko aukera arautzen duena.

(2015eko maiatzaren 5ekoa)

OHARRA

Testu hau dibulgaziozkoa da soilik, eta ez du inolako izaera ofizialik. Araua osoa eta eguneratua jasotzen da bertan.

ZIOEN AZALPENA ZIOEN AZALPENA

I. KAPITULUA. XEDAPEN OROKORRAK

1. artikulua. Xedea.
2. artikulua. Helburua.
3. artikulua. Aplikazio-eremua eta egonaldien kudeaketa.
4. artikulua. Zerbitzua emateko erregimena edo araubidea.
5. artikulua. Administrazio publikoen arteko lankidetzaketa.
6. artikulua. Aldi baterako egonaldien tipologia.
7. artikulua. Zerbitzuaren erabiltzaile izateko betekizunak.
8. artikulua. Pertsona eskatzailearen adostasuna.

II. KAPITULUA. PROZEDURAK

9. artikulua. Prozedurak.

1. ATALA. Egoitza-zentroetan Aldi Baterako Egonaldi Zerbitzuan onartua izateko prozedura

10. artikulua. Xedea.

11. artikulua. Prozedura abiaraztea.

12. artikulua. Prozedura bideratzea.

13. artikulua. Prozedura ebaztea.

14. artikulua. Atzera egitea.

15. artikulua. Eskaera ukatzeko arrazoiak.

16. artikulua. Aldi baterako egonaldiako eskubidea iraungitzea.

17. artikulua. Aldi baterako egonaldi zerbitzurako eskubidea etetea.

18. artikulua. Aldi baterako egonaldi zerbitzuan baja emateko prozedura.

2. ATALA. Egoitza zentro batean aldi baterako egonaldia eskatzeko prozedura.

19. artikulua. Xedea.

20. artikulua. Prozedura abiaraztea.

21. artikulua. Prozedura bideratzea.

22. artikulua. Prozedura ebaztea.

23. artikulua. Atzera egitea.

3. ATALA. Errekurtso administratiboak.

24. artikulua. Errekurtso administratiboak.

III. KAPITULUA. EGONALDIEN KUDEAKETA

25. artikulua. Sartu aurreko informazioa egonaldia egiteko.

26. artikulua. Esleitutako aldi baterako egonaldi zentroan sartzea.

27. artikulua. Aldi baterako egonaldian egindako jarduketak.

28. artikulua. Uko egitea.

29. artikulua. Plaza gordetzea.

30. artikulua. Egonaldia iraungitzea.

31. artikulua. Erabiltzailearen eta zaintzaile nagusiaren konpromisoa.

IV. KAPITULUA. BATERAGARRITASUNAK ETA BATERAEZINTASUNAK.

32. artikulua. Aldi berean prestazio ekonomikoak jasotzea.

33. artikulua. Zerbitzuen aldiberekotasuna.

V. KAPITULUA. ERABILTZAILIEN ESKUBIDEAK ETA BETEBEHARRAK

34. artikulua. Egoitza zentroetan aldi baterako egonaldi-zerbitzuak erabiltzen dituzten pertsonen eskubideak.

35. artikulua. Egoitza-zentroetan aldi baterako egonaldi zerbitzuak erabiltzen dituzten pertsonen betebeharrak.

36. artikulua. Prezio publikoa ordaintzeko obligazioa.

XEDAPEN GEHIGARRIAK.

Lehendabizikoa. Aplikatuko den araudia.

Bigarrena. Araudia garatzea.

XEDAPEN IRAGANKORRAK

XEDAPEN INDARGABETZAILE BAKARRA

AZKEN XEDAPENA

I. ERANSKINA. Aldi baterako egonaldien tipologia egoitza zentroetan.

II. ERANSKINA. Aldi baterako egonaldi-zerbitzuan onartua izateko eskaerarekin batera aurkeztu beharreko dokumentazioa.

III. ERANSKINA. Gizarte-balorazioa eta baremoa.

ZIOEN AZALPENA

Abenduaren 14ko 39/2006 Legeak, Autonomia Pertsonala Sustatzeari eta Mendekotasun egoeran dauden pertsonak zaintzeari buruzkoak, zerbitzu-katalogo bat ezarri zuen bere 15. artikuluan, non, besteak beste, duten desgaitasun-motaren arabera, mendekotasun egoeran dauden adineko pertsonen zentroetan eta mendekotasun-egoeran dauden pertsonen arreta emateko zentroetan eskainitako egoitza-zerbitzu bat zegoela zehaztu zen.

Lege horretan bertan, geroago, aipatutako zerbitzuen katalogoa deskribatuta dago, eta 25.3. artikuluan, honako hau xedatu zen egoitza-arretako zerbitzuari buruz: *“Zerbitzua eskaintzeko modua iraunkorra izango da, egoitza hori dena delako pertsonaren ohiko egoitza bihurtzen bada, edo aldi baterakoa soilik, aldi bateko gaixotasunengatik sortutako egonaldien kasuan, nahiz oporretan, asteburuetan, edo profesionalak ez diren zaintzaileak gaixotzean edo atseden hartzen dutenean”*.

Euskadiko Gizarte Zerbitzuei buruzko 12/2008 Legeak, abenduaren 5ekoak, bere II. Tituluko I. Kapituluaren 3. atalean, eta 22. artikuluan zehazkiago esateko, aldarrikatzen du Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemako Prestazio eta Zerbitzuen Katalogoa. Artikulu horren 2.5 puntuan

ezarritakoaren arabera, bigarren mailako arreta zerbitzua da Atsedenerako Zerbitzua, izaera propioa eta independentea duena, egoitza zentroetan ematen diren zerbitzuetatik ere apartekoa.

Katalogo hau oraindik garatu gabe dagoenez, hau da, Lege horren beraren 23.1 artikuluan aurreikusitako Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemako Prestazio eta Zerbitzuen Kartera eratu gabe dagoenez, eta kontuan hartuta egoitza zerbitzuetan ematen diren aldi baterako edo atsedenerako egonaldiak, mendekotasuna edo desgaitasuna duen adineko pertsona bere ohiko ingurunean mantentzeko ematen den laguntzat hartu behar direla, behar-beharrezkoa da Gipuzkoako Lurralde Historikoan gai honen inguruan dagoen araudia osatzea eta gaur egungo egoeraren premietara egokitzea; betiere bere printzipio gidariak kontuan hartuta, eta horien artean bereziki, berdintasuneko eta ekitateko printzipioak.

Une honetan, ondoren aipatzen diren arauak erregulatzen dute Gipuzkoako Lurralde Historikoan adierazitako zerbitzua:

a) Aldi baterako egonaldi luzei dagokienez, uztailaren 18ko 72/2000 Foru Dekretuak, mendekotasuna duten adineko pertsonen arduraren duten familiei laguntzeko Sendian programa onesten duenak; eta abenduaren 30eko 758/2002 Foru Aginduak, Sendian programako zerbitzu eta prestazioen prezioak, baremo ekonomikoak eta erabiltzaileen ekarpenak onartzen dituenak.

b) Atsedenaldirako aldi baterako egonaldi laburrei dagokienez, apirilaren 29ko 29/2008 Foru Dekretuak, mendekotasuna duten adineko pertsonen arduraren duten familiei laguntzeko "Sendian" programa onesten duenak; horren bidez, uztailaren 18ko 72/2000 Foru Dekretua, era berean egonaldi mota horiek arautzen zituen, partzialki baliogabetu zen.

Hortaz, arau sakabanatuak ditugu (bi foru dekretu), denboran ere elkarrengandik aski urrun daudenak. Gainera, ez da berariazko araudi bat, programa zabalago baten barruan (Sendian izenekoan) dagoen araudia baizik, eta, horregatik, aldi baterako egonaldien inguruko erregulazioa oso azalekoa da.

Beste alde batetik, nabarmendu behar da erregulazio horren barruan mendekotasun egoeran dauden adineko pertsonen aldi baterako egonaldiak soilik sartzen direla, ez dagoela desgaitasuna duten pertsonak barnean hartzen dituen araudirik, eta, hortaz, horrelako araudi bat onartu beharko dela. Desgaitasuna duten pertsonen aldi baterako egonaldiak eta atsedenaldirako aldi baterako egonaldiak dira, hain zuzen ere, konplexutasun handiena dutenak, zerbitzua jasotzeko eskabide eta kudeaketa egiteko modalitate ugari daudelako. Hauek lirateke, laburbilduta, modalitateak:

1.- Eskaera oinarrizko gizarte zerbitzuen bidez, eta jasotzearen kudeaketa Gizarte Politikako Departamentuaren bidez.

2.- Eskaera zerbitzua ematen duen erakundearen bidez, eta jasotzearen kudeaketa zerbitzua ematen duen erakundearen bidez.

Gaur egun, eta Gipuzkoako Lurralde Historikoan errotuta dagoen desgaitasunaren arloko erakunde eta elkarten familienganako hurbiltasunean oinarritutako ohitura baten ondorioz, bigarren tipologiako egonaldiak dira nagusi. Zerbitzu hurbila eta arina eskaintzea ahalbidetu du horrek, familien beharrei egokiro erantzun dien zerbitzua, hain zuzen ere. Hala ere, prozedura horrek ez du bermatzen zerbitzua irizpide homogeenetatik abiatuta ekitatez jasotzea, lehenengo prozedurak, aldiz, bermatzen duen bezala. Hala bada, desiragarria litzateke eskaera oinarrizko gizarte zerbitzuen bidez egin eta bertan onartua izatearen kudeaketa Gizarte Politikako Departamentuaren bidez egin izan dituzten egonaldien portzentajea maximizatzeke joera bultzatzea, arintasunik eta gertutasunik batere kendu gabe. Horretarako, beharrezkoa izango da egokitzeke prozesu nabarmena, eta, halaber, baita prozesuak egokitzea ere. Hortaz, beharrezkoa izango da egokitzeke aldi iragankor bat, tarteko egoerak kontuan hartzeke.

Zerbitzu horren ezaugarri nagusia aldi baterakoa izatea da, hau da, egoitza zerbitzu batean egiten den egonaldia mugatua izatea, era horretan, ohiko ingurunean mantenduko dela eta zainketak bertan egingo zaizkiola bermatuko baitzaio zerbitzuaren erabiltzaileari; izan ere, laguntza bat da, ingurune horretan atsedena hartzeke beharren aurrean, eta, atsedena hori arriskuan dagoenean, unean-unean indartzeko modua, edonola ere mendekotasuna duen pertsonari eman beharrezko zainketak bermatuz.

Egonaldien tipologiari dagokionez, iraupena ez ezik, egonaldien xedea edo zioa ere zein den ahalik eta zehatzen definitu behar da. Oso zabaldua dago *atseden* terminoa erabiltzeke egonaldi mota horiez ari denean; 12/2008 Legeak berak ere definizio hori ematen du. Hala ere, eskarmentuak erakutsi digu aldi baterako egonaldi horiek ez dutela zaintzailearen atsedena beharra soilik asetzen, bestelako behar ugari ere asetzen baitituzte, askotan bat-batekoak edo ustekabeak izan ohi direnak, edo baita erabiltzaileak berak aukeratutakoak ere.

Bestalde, prozeduraren kudeaketa bi fasetan egitea planteatzen da: hasierako eskaerari eta zerbitzuan alta emateari dagokiona, batetik, eta eskaera harren ondorengoak diren ondoko egonaldi zehatz guztiei eta horietako bakoitzari dagokiena, bestetik. Bereizketa horri esker, karga administratibo guztia hasierako prozeduraren gainean jarri nahi litzateke, aurkeztu beharrezko akreditazioko dokumentazio guztia behin bakarrik entregatuz horrela, hurrengo egonaldien eskaera guztietan eta horietako bakoitzean aurkezten ibili beharrean.

Egonaldi bakoitzaren kudeaketa arrunta foru dekretu honetan bertan arautzen da, alderdi orokorreari dagokienez, baina dena den, araudiaren garapen bat beharko litzateke egonaldiaren iraupena, egunen zenbatekoa eta gerta daitezkeen aukerak hain aldakorak izanik, arau honek

ematen ez dituen gainerako alderdiak ere zehazteko. Eta alderdi honekin batera, aldi baterako egonaldien erabiltzaileek dituzten bateragarritasunak, eskubideak eta obligazioak ere erregulatzen dira

Araubide ekonomikoari dagokionez, erregulazioa mendekotasuna dutenak artatzeko zentroetako pertsona erabiltzaileen ekarpen ekonomikoa erregulatzen duen araudiaren arabera egingo da, aldi baterako egonaldiei aplikatzekoa den heinean.

Kontuan hartuta, bestalde, generoak arau honetan duen eragina, batez ere, zaintzaileei atsedena ematea helburu duten egonaldiei dagokienez; araua idazterakoan aintzat hartu dira Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako 2005eko otsailaren 18ko 4/2005 Legeak 3.4 artikuluan, eta Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako 2015eko martxoaren 9ko 2/2015 Foru Arauak 3. artikuluan ezarritako printzipioak, desberdintasunak desagerrarazten eta emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna sustatzen saiatzeko.

Araudi honekin lortu nahi da gizonen ardura partekatua sustatzea etxeko lanetan nahiz zaintza lanetan, atsedena hartzeko aukerak eskainiz eta familia inguruneko zaintzen errealitatea aitortuz eta duin bihurtuz. Era berean, zaintzak jasotzeko eskubidea ahalbidetzen da berdintasun egoeran, zaintza jasotzen duten pertsonen autonomiaren sustapena bermatuz, eta emakumeen gain gelditzen den familia inguruneko zaintzen eredia (eskaintzen duten arretan eta bere gain hartzen dituzten arduretan inolako atsedetik hartu gabe) ez errepikatzeko neurriak abian jarritz.

Hori guztia dela-eta, Gizarte Politikako Departamentuko foru diputatuaren proposamenez, eta Diputatuen Kontseiluak gaurko bileran eztabaidatu eta onartu ondoren,

XEDATZEN DUT

I. KAPITULUA. XEDAPEN OROKORRAK

1. artikulua. Xedea.

Foru dekretu honen xedea da erregulatzea Gipuzkoako Lurralde Historikoan aldi baterako egonaldien erregimen juridikoa eta egoitza zerbitzu publikoa, beren autonomian dituzten mugapenetatik eratorritako premiak dauzkaten pertsonentzat.

2. artikulua. Helburua.

Foru dekretu honen xedearen erregulazioaren bitartez, mendekotasun egoeran dagoen pertsonak (adineko pertsona izan daiteke, desgaitasuna edo gaixotasun mentala duena) bere

ingurunean behar duen arreta osoa bermatu nahi litzateke, betiere familiartekoen edota pertsona zaintzaileen atsedeen-premiei erantzunez, eta zainketen jarraipena arriskuan jar dezakeen edota zaintza horiek birplanteatu beharra ekar dezakeen gorabehera orori aurrea hartuz. Era berean, pertsona horien arreta ere bermatu nahi da, zerbitzu hori euren bizimodua behar bezala garatu ahal izateko edo beraien eguneroko inguruneak behar adina estaltzen ez dituen premiak betetzeko laguntza moduan aukeratuko duten kasuetarako.

Zaintzaileen atsedeen premiak onartzean eta erantzun bat ematean, emakume zaintzaileak ahaldundu nahi dira eta emakumeen eta gizonen erantzun partekatua sustatu nahi da zaintza lanetan.

3. artikulua. Aplikazio-eremua eta egonaldien kudeaketa.

1. Foru dekretu hau egoitza zentroetan egingo diren aldi baterako egonaldietan aplikatuko da, mendekotasun egoeran aurkitzen diren adineko pertsonentzat bezala baita desgaitasuna eta gaixotasun mentala duten pertsonentzat, betiere egonaldi horiek Gipuzkoako Foru Aldundiaren sare propioko edo itunpeko sareko egoitzetan egiten badira.

2. Gipuzkoako Foru Aldundiak, aparteko kasuetan, itundu gabeko edota Gipuzkoako Lurralde Historikotik kanpoko egoitza plazak erabili ahal izango ditu xede horretarako, baldin eta plaza horiek foru dekretu honetan edo berau ordeztzen edo garatzen duen araudian ezarritako baldintzak betetzen badituzte.

3. Aldi baterako egonaldien erregimenean erabiltzera bideratzen diren egoitza plazen gehieneko iraupena eta banaketa, Gipuzkoako Foru Aldundiak foru dekretu hau garatzeko onartzen duen prozedurari jarraituz zehaztu eta ezarriko dira.

4. artikulua. Zerbitzua emateko erregimena edo araubidea.

1. Mendekotasun egoeran dauden adineko pertsonentzako aldi baterako egoitza zerbitzua, hau da, testu arautzaile honen helburu den zerbitzua emateko araubidea, zerbitzua ematen duten zentroak dituzten erakundeekin Gipuzkoako Foru Aldundiak hitzarmena edo ituna sinatua duen kasuetan aplikatuko da, maiatzaren 22ko 38/2007 Foru Dekretuan xedatutakoaren arabera, izan ere foru dekretu horrek zehazten baititu mendekotasuna duten adineko pertsonentzako egoitza zerbitzuak ituntzeko beharrezkoak diren baldintzak. Bestela, dekretu hori ordeztzen edo garatzen duen araudian ezarritakoari jarraituko zaio.

2. Zerbitzua kontratu administratibo bat formalizatu izanaren ondorioz ematen bada, aldi baterako egonaldiei buruz kasuan kasuko baldintza agirietan eta kontratuan ezarritakoa beteko da. Halakorik izan ezean, egonaldi iraunkorretarako ezarrita dagoen araubideari jarraituz emango da zerbitzua.

3. Desgaitasuna edo gaixotasun mentalen bat daukaten pertsonentzako aldi baterako egoitza zerbitzua emateko araubidea, halaber, pertsona horiei zuzendutako egoitza zerbitzuari buruz unean-unean indarrean dagoen arau-esparrura egokitu beharko da.

5. artikulua. Administrazio publikoen arteko lankidetzak.

1. Gipuzkoako Foru Aldundiko Gizarte Politikako Departamentuak eta gizarte zerbitzuen eta/edo laguntza zerbitzuen gaian eskumena duten gainerako administrazio publikoek, elkarrekiko informazio, lankidetzak eta koordinazioko betebeharrak beteko dituzte, betiere bakoitzari dagokion eskumen-esparrua errespetatuz.

2. Administrazio publiko horiek, beren eskumenerako esparruan, eskumen horiek eraginkortasunez garatzeko eskura ditzaketen lankidetzak eta laguntza aktiboa eman beharko dute.

3. Xede horri begira, gizarte zerbitzuen eta/edo laguntza zerbitzuen inguruan eskumena duten administrazioen artean beharrezkoak diren bitarteko guztiak egituratuko dira, zerbitzua emateko prozeduraren barruan beharrezkoa den informazioa errazteko.

6. artikulua. Aldi baterako egonaldiaren tipologia.

1. Foru dekretu honen ondorioetarako, aldi baterako egonaldi mota hauek bereiziko dira:

a) Atsedenerako egonaldiak: Mendekotasun egoeran dauden pertsonen zuzenduak daude (adinekoak, desgaitasuna nahiz gaixotasun mentala dutenak), profesionalak ez diren zaintzaileek artatzen dituzten kasuetan. Egonaldi hauen helburua da zaintzaile nagusiari aukera ematea atsedenerako, indarberritzeko eta/edo garapen pertsonalerako denbora har dezan, edota zaintza lanak betetzea eragozten dion premia egoera bati aurre egin ahal izateko.

Egonaldi horiek, halaber, laburrak edo luzeak izan daitezke; eta gutxienerako zein gehieneko iraunaldi horiek foru aginduaren bitartez zehazten dira.

Nolanahi ere, egonaldia bukatzean, mendekotasuna duen pertsona hori bere ohiko ingurunera itzuliko da.

b) Zaintzen jarraipena bermatzeko aparteko egonaldiak: ustekabeen sortutako egoera baten ondorioz gertatzen direnak, nahiz irtenbide egonkor bat kudeatzea eskatzen dutenak. Ezusteko egoera hori mendekotasuna duen pertsonarekin lotua egon daiteke,

edo pertsona hori zaintzeaz arduratzen diren pertsonekin, edo baita bizileku duten ingurunearekin ere.

c) Norberak aukera ditzakeen egonaldiak: bere bizi planean zerbitzu hau barneratzeko aukera emango zaio pertsona bakoitzari, bere garapen pertsonalerako edo baita bere ohiko ingurunean estaltzeko zailak diren premiak asetzeko.

2. Arrazoi horiek aintzat hartuta eta bestelako gorabehera garrantzitsuak kontuan hartuta zehaztu dira foru dekretu honen I. Eranskinean deskribatuko diren egonaldi motak; eta kasu bakoitzean, aldi baterako egonaldia bukatzean erabiltzaileak izango duen destinoa erantsi da, dagokion irteera planifikatze aldera.

7. artikulua. Zerbitzuaren erabiltzaile izateko betekizunak.

Abenduaren 5eko Gizarte Zerbitzuei buruzko 12/2008 Legean aurreikusitako baldintza espezifikoak ezarri arte eta erregelamendua garatzen ez den bitartean, honako hauek izango dira zerbitzuaren erabiltzaile izateko betekizunak:

1. Betekizun orokorrak.

a) Zerbitzuaren premia. Premia edo beharrian hori egiaztatzeko, eskatzaileak adierazpen bat aurkeztuko du foru dekretu honen 6. artikuluan eta I. Eranskinean azaldutako kasuren batean dagoela ziurtatuz.

b) Bai pertsona erabiltzaileak eta baita pertsona zaintzaileak ere, halakorik izanez gero, eskaera egiteko momentuan Gipuzkoako Lurralde Historikoan izan behar dute benetako bizilekua. Hori egiaztatzeko, erroldatze-agiria eta bizikidetzaz-ziurtagiria aurkeztu beharko dira. Erroldatua egon arren benetako bizilekuari buruz arrazoizko zalantzak izanez gero, benetako bizileku hori egiaztatzeko beste agiri gehigarri batzuk ere eskatu ahal izango dira.

Egonaldirako arrazoia mendekotasun egoeran dagoen pertsonareneko desgaituaren ohiko ingurunean irisgarritasun obrak egitea edo ingurunea bera egokitzea bada, hala nola alta ondoko zainketak emateko aparteko egonaldiaren kasuak baldin badira, bizikidetzaren baldintza ez da bete beharrik izango, baldin eta Udaleko Gizarte Zerbitzuek eskaeraren aldeko txosten soziala egiten badute, nahiz eta pertsona erabiltzailearekin bizi den beste pertsona zaintzailerik egon ez kasu horretan.

c) Erabiltzaileak mendekotasun egoeran dagoela aitortzea. Hori egiaztatzeko, mendekotasuna baloratzeko agiria (MBA) aurkeztuko du, egoera hori ziurtatzen duen agiria, hain zuzen. Hiru mendekotasun maila daude eta horietako edozein izan daiteke.

d) Egoitzan sartzeko eskatutako adina izatea:

- Egoitza zerbitzuak adineko pertsonentzat: 65 urte edukitzea edo eskaera aurkezten den urtean betetzea, edo 60 urte edukitzea desgaitasuna duten pertsonen kasuan.

Baldintza hori betetzetik salbuetsi ahal izango dira, aurrez medikuaren txostena eta aldeko txosten soziala aurkeztuta, mendekotasun egoera aitortua duten eta gorabehera pertsonal edo sozialengatik zentro mota horrek ematen duen arretak mesede egin diezaiekeen pertsonak.

- Egoitza zerbitzuak desgaitasuna edo gaixotasun mentala duten pertsonentzat: 18 urte beteta edo hortik gora edukitzea, edo 64 urte beteta edo hortik behera edukitzea eskaera aurkezten den egunean.

Baldintza hori betetzetik salbuetsi ahal izango dira, aurrez medikuaren txostena eta aldeko txosten soziala aurkeztuta, mendekotasun egoera aitortua duten eta gorabehera pertsonal edo sozialengatik zentro mota horrek ematen duen arretak mesede egin diezaiekeen pertsonak.

e) Mendekotasun egoeran dauden pertsonen autonomia pertsonala eta arreta sustatzeko abenduaren 14ko 39/2006 Legean jasotako prestazio ekonomikoak erregulatzen dituen 25/2009 Foru Dekretuan, uztailaren 21ekoan, aurreikusitako Zerbitzuari Lotutako Prestazio Ekonomikoa ez jasotzea, eta prestazio horren jasotzaile gisa alta emanda ez egotea, baldin eta lotura hori egoitza zerbitzu iraunkorrari buruzkoa bada. Nolanahi ere, erabiltzailearen aldi baterako egonaldiaren iraupenak eten egingo du 25/2009 Foru Dekretuak, uztailaren 21ekoak, 18. artikulua a) letraren bigarren pasartean aurreikusitako gutxieneko epearen konputua.

f) Eskatzaileak ez du bizi behar, izaera iraunkorrez, adineko pertsonentzako edo desgaitasuna duten pertsonentzako ezein egoitza zentrotan; era berean, aldi baterako egonaldi hori ez du erabili behar erabiltzailearen edo honen familiaren egonaldi pribatuaren kostua osorik edo zati batean finantzatzeko.

g) Eskatzaileak ez du baliabide espezializatu edota zaintza maila handirik eskatzen duen osasun laguntzarik behar izango; hau da, ez du era honetako egoitza zerbitzu baten berriazko ahalmen edo gaitasunez aparteko laguntzarik beharko.

h) Ez du gaixotasun infekzioso edo kutsagarririk izango, delako gaixotasun hori transmititzeko bidea kontuan hartuta, egoitza zentro batean artatzeko modukoa den kasuetan izan ezik.

i) Eskatzaileak ez du izango jokabide nahasmendu larririk, ezta zentroaren funtzionamendu normala edo zentroko bizikidetzaren normala larriki kaltetu dezakeen portaerarik ere; hau da, ez du izango adineko pertsonentzako eta desgaitasuna duten pertsonentzako era honetako egoitza zentroen berariazko baliabideekin kontrolatzeko modukoa ez den portaerarik, baldin eta zentroak, arazo horiei erantzuteko plaza espezifikorik ez badu behintzat.

j) Ez du aurreko aldi baterako egonaldiengatik, edota Gipuzkoako Foru Aldundiko Gizarte Politikako Departamentuak aurrez emandako beste edozein zerbitzurenengatik zorrik izango.

Erabiltzailearen laguntzaileak ez du c) eta d) baldintzak bete beharrik izango, baldin eta erabiltzailearekin legez ezkondua badago, edota berorren izatezko bikotea bada, izatezko bikoteak arautzen dituen maiatzaren 7ko 2/2003 Legean xedatutakoaren arabera.

2. Betekizun espezifikoak.

a) Adineko pertsonentzako zentroetan egonaldiak egiteko:

Eskatzaileak orientazio-txostena beharko du. Baliabidearen egokitasuna txosten horretan zehaztuko da, Gipuzkoako Foru Aldundiak xede horretarako ezarritako balorazio eta orientazioko tresnaren bitartez, eta era berean, kasuan-kasuan egokia den plaza mota adieraziko da (plaza konbentzionala edo Unitate Psikogeriatrikokoa den adieraziz). Egokitasunari buruzko balorazio horrek bat etorri behar du eskatzailearen egungo egoerarekin; hau da, ezin izango da erabili aurreko egoera batean bidezkoa zen baina aldi baterako egonaldia egiteko eskaera aurkezteko momentuan nabarmen aldatu den baloraziorik. Ospitaleren batean egindako edozein ingresuk egokitasuneko balorazioa eguneratu beharra ekarriko du ezinbestean.

b) Desgaitasuna duten pertsonentzako zentroetan egonaldiak egiteko:

Eskatzaileak orientazio-txostena beharko du, baliabidearen egokitasuna zehazten duena, Gipuzkoako Foru Aldundian desgaitasunaren balorazioa egin eta orientazioa emateko teknikariek luzatua.

c) Gaixotasun mentala duten pertsonentzako zentroetan egonaldiak egiteko:

Osasun mentaleko sare publikoan artatua egotea, eta Balorazio Soziosanitarioko Batzordeak luzatutako orientazio-txostenean aipatutako zerbitzurako egokitzea jotzea.

d) Atsedenerako egonaldiak egiteko, eta esku-hartze planaren arabera, irteteko unean pertsona zaintzaile bat izan beharra eskatzen duten egonaldiak egiteko:

Zaintzaile nagusi gisa identifikatzen den pertsonarekin bizi behar da, baldin eta egonaldiako arrazoia mendekotasun egoeran dagoen edo desgaitasuna duen pertsonaren ohiko inguruneko irisgarritasun obrak egitea edo ingurunea bera egokitzea bada; horrelakoetan, dena den, Udaleko Gizarte Zerbitzuek eskaeraren alde egindako txostena aurkeztu beharko da, nahiz eta pertsona erabiltzailearekin bizi den pertsona zaintzailerik ez egon.

3. Pertsona laguntzailea

Aparteko kasuren batean, familia-unitatea mantentzeko beharrezkoa denean, egoitza ekipamenduetan batera sartzeko aukera eskatu ahal izango da, baldin eta eskatzaileetako batek aurreko atalean aipatutako baldintzak betetzen baditu eta beste eskatzaileak honako egoera hauetakoren bat egiaztatzen badu:

a) Ezkontidea edo izatezko bikotekidea izatea, izatezko bikoteak arautzen dituen maiatzaren 7ko 2/2003 Legean xedatutakoaren arabera; eta horrez gain, ohikoan beste eskatzailearekin batera bizitzea.

b) Lehen edo bigarren mailako senitartekoa izatea, odolkidetasunez, ahaidetasunez edo adopzioz, eta baliabide horren premian egotea.

4. Betekizunak egiaztatzea

Aipatutako betekizun edo baldintzak betetzen direla egiaztatzeko, foru-dekretu honen II. Eranskinean zehaztu diren datuak eta agiriak aurkeztu beharko dira, baldin eta datu eta agiri horiek lehendik ere Administrazio Publikoen esku ez badaude behintzat. Dena den, izaera pertsonaleko datuen kasuan, interesdunen adostasuna beharko da Izaera Pertsonaleko Datuak Babesteko 15/1999 Lege Organikoan, edo Lege indarreko beste arauen batean ezarritako baldintzak betez.

8. artikulua. Pertsona eskatzailearen adostasuna.

Eskatzailea erabiltzaile hartu ahal izateko, ezinbestekoa izango da eskatzaile horrek egoitzan sartzeko adostasuna ematea, modu ukaezinean, adierazpen libre, kontziente eta formalaren eskakizunak beteta. Adostasun hori eskatzaileak berak aurkez dezake edo, bestela, legezko nahiz borondatezko ordezkariaren edota izatezko zaintzailearen bitartez.

II. KAPITULUA. PROZEDURAK

9. artikulua. Prozedurak.

Aldi baterako egonaldi zerbitzuaz baliatu ahal izateko, bi prozedura administratibo bereizi tramitatu beharko dira:

1. Egoitzetan Aldi Baterako Egonaldi Zerbitzuan onartua izateko prozedura.
2. Egoitzan aldi baterako egonaldia eskatzeko prozedura.

1. ATALA. EGOITZA ZENTROETAN ALDI BATERAKO EGONALDI ZERBITZUAN ONARTUA IZATEKO PROZEDURA

10. artikulua. Xedea.

1. Aldi Baterako Egonaldi Zerbitzuan egindako eskaera erregulatzea da prozedura honen helburua, egoitza zentro batean aldi baterako egonaldia eskatu ahal izateko.
2. Foru dekretu honetako 7. artikuluan aurreikusitako betekizun eta baldintzak bete direla egiaztatu ondoren, eskatzaileak egonaldiak eskatu ahal izango ditu, aldi bakoitzean betekizun horiek egiaztatu gabe, betiere baldintza horiei eragiten dien funtsezko aldaketaren bat gertatu ez bada behintzat.
3. Betekizun eta baldintzen egiaztapenak eta, ondorioz, aldi baterako egonaldi zerbitzuko onarpenak, hasiera batean, eskaera egiten den urteko abenduaren 31ra arteko baliozkotasuna izango du oro har.

Nolanahi ere, aldi baterako egonaldiaren eskaera urte aldaketarekin egokitzen bada, betekizunen egiaztapena eta aldi baterako egonaldi zerbitzuko onarpenaren ondorioak urte berriko urtarrilaren 31 artekoak izango dira.
4. Aldi baterako egonaldi zerbitzuan onartzeko ebazpenaren indarraldia amaitutakoan, zerbitzuaren erabiltzaileak zerbitzuan berriz onartzeko eskaera aurkeztu beharko du, hurrengo artikuluan xedatutakoaren arabera.

11. artikulua. Prozedura abiaraztea.

1. Eskatzaileak edo legezko ordezkariak, edo borondatezko ordezkariak, edo izatezko zaintzaileak, halakorik izanez gero, eskatzailea erroldatua dagoen udalerriko Gizarte Zerbitzuetan aurkeztu behar du zerbitzuan onartua izateko eskaera.
2. Eskaera horrekin batera, foru dekretu honen II. Eranskinean adierazitako dokumentazioa aurkeztuko da, xedapen honen 7. artikulua 4 apartatuan adierazitako salbuespenak aintzat hartuta.
3. Udaleko oinarrizko Gizarte Zerbitzuek eskaera Gizarte Politikako Departamentuari igorriko diote, beraiek egindako balorazio sozialarekin batera.
4. Baldin eta aurkeztutako eskabidea osatu gabe badago, edota aurreko artikuluan aipatutako agiri edo dokumenturen bat falta bada, Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen 30/1992 Legeak, azaroaren 26koak, bere 71.1 artikuluan ezarritakora joko da. Eta horrela, eskatzaileari hamar egun balioduneko epea emango zaio antzemandako akatsak zuzentzeko eta arauzko agiriak aurkezteko; era berean ohartaraziko zaio, agindutakoa bete ezean, eskabidea ezetsizat joko dela, aipatutako 30/1992 Legeak, azaroaren 26koak, bere 42. artikuluan aurreikusitako baldintzetan bidezko ebazpena emanda aldeztu aurretik.

12. artikulua. Prozedura bideratzea.

1. Eskabidea Gizarte Politikako Departamentuan jasotzean, eskatzailearen egoera aztertuko da, bere ikuspegi guztietatik, foru dekretu honetan xedatutakoari jarraituz eta departamentu horrek ezarritako irizpide teknikoaren arabera.
2. Balorazioa egiteaz arduratzen diren zerbitzu teknikoek eskatzailearen egoera aztertzeko beharrezkotzat jotzen dituzten azterketa edo errekonozimenduak, elkarrizketak eta bidezkoak izan daitezkeen gainerako probak egin ahal izango dituzte; era berean, xede horretarako egokiak izan daitezkeen txostenak eskatuko dizkiete beste zerbitzu eta erakundeei.
3. Gizarte Politikako Departamentuak, halaber, eskatzailearen eta, halakorik balego, laguntzailearen egoera ekonomikoa baloratuko ditu, horiek egin beharreko diru-ekarpenaren zenbatekoa zehazteko. Departamentuak, xede horri begira, beharrezkotzat eta bidezkotzat jotzen duen dokumentazio osagarria ere eskatu ahal izango du.

13. artikulua. Prozedura ebaztea.

1. Irizpen teknikoa eman eta, bidezkoa denean, interesdunari entzuteko tramitea bete ondoren, kasuan kasuko ebazpen proposamena igorriko zaio Ezinduen eta Desgaituen Laguntzako Zuzendaritza Nagusiari.

2. Aurreko apartatuan aipatutako ebazpen- proposamenaren argitan, Ezinduen eta Desgaituen Laguntzako Zuzendaritza Nagusiak ebazpena emango du, eta interesdunari jakinaraziko dio Gizarte Politikako Departamentuan eskaera jaso zenetik hasita hilabeteko epean, edo udaleko oinarrizko gizarte zerbitzuetan jaso zenetik hasita bi hilabeteko epean. Jakinarazpen horretan, dagozkion errekursoak adieraziko dira. Baldin eta espedientea etenda egongo balitz eskatzaileari lepora dakiokkeen arrazoiren batengatik, etendura hori ez da konputatuko arestian aipatutako epe horren barruan.

3. Prozedurari ebazpen arrazoitua eman beharko zaio, honako alderdi hauek aintzat hartuta betiere:

a) Eskatzaileari aldi baterako egonaldi zerbitzuaren erabiltzaile-izaera onartu edo, aitzitik, ukatu egin zaion adieraziko da, foru dekretu honetako 6. artikuluan zehaztutako arrazoietan ezarritakoaren arabera zein egonaldi mota dagokion finkatuz.

b) Izaera hori onartzea ebazten bada:

- Erabaki horren ondorioen hasiera-data adieraziko da, interesdunak aldi baterako egonaldien eta amaieraren eskaera zehatzak aurkeztu ahal izan ditzan.

- Zerbitzuaren prezio publikoa eta erabiltzaileak egin beharreko ekarpena, hau da, egonaldi-egun bakoitzeko ordaindu beharreko diru-kopurua, adieraziko da, betiere mendekotasuna, desgaitasuna eta nahasmendu psikikoa artatzeko zentroetako erabiltzaileek egin beharreko diru-ekarpena erregulatzeko indarrean dagoen foru araudiaren arabera.

c) Erabiltzaile izaera ukatzea ebazten bada, ezespren horren arrazoia edo arrazoiak adieraziko dira.

4. Ebazpena eman eta hori jakinarazteko gehieneko epea –bi hilabete eskaera udaleko oinarrizko gizarte zerbitzuetan aurkeztu zenetik aurrera– bete arren berariazko ebazpena oraindik eman ez bada, aldi baterako egonaldi zerbitzuan sartzeko eskaera ezetsizat emango da, administrazioaren isiltasuna dela-eta.

14. artikulua. Atzera egitea.

Ebazpena eman aurretik, prozeduraren edozein momentutan, eskatzaileak edo bere legezko ordezkariak, edo bere borondatezko ordezkariak, edo izatezko zaintzaileak, halakorik balego, atzera egin dezake aldi baterako egonaldi zerbitzuan onartua izateko eskaeran. Atzera egite hori idatziz jakinaraziko da, edo bestela, eskaera aurkeztu zen udaleko oinarrizko gizarte zerbitzuetan legitimatua dagoen pertsona bertaratuta. Azken kasu horretan, kasuan kasuko funtzionarioak edo lan-kontratupeko langileak, bertaratzearen akta egingo du. Akta hori aipaturako pertsona horrek eta interesdunak sinatu beharko dute; edo bestela, interesdunaren legezko ordezkariak, borondatezko ordezkariak edota izatezko zaintzaileak.

15. artikulua. Eskaera ukatzeko arrazoiak.

Foru dekretu honen 7. artikuluan aurreikusitako edozein betekizun edo baldintza ez betetzeak aldi baterako egonaldi zerbitzuan sartzeko eskaera ukatzea ekarriko du.

16. artikulua. Aldi baterako egonaldiako eskubidea iraungitzea.

1. Aldi baterako egonaldi zerbitzuaren erabiltzailearen eskubidea iraungi egingo da, eta hortaz, zerbitzu horretan baja emango zaio, honako arrazoiren bat gertatzean:

- a) Eskatzailearen heriotza.
- b) Berariaz uko egitea, idatziz formulatuta edota eskatzailea erroldatua dagoen Udaleko oinarrizko Gizarte Zerbitzuan bertaratuta.
- c) Zerbitzuan onartua izan eta gero, foru dekretu honen 7. artikuluan exijitutako betekizun edo baldintzaren bat ez betetzea gertatzea.
- d) Erabiltzaileak foru dekretu honen 35. eta 36. artikuluetan jasotako betebeharrak ez betetzea.

2. Aurreko apartatuko a) letraren kasuan, erabiltzailearen heriotzaren berri izateak jarduketak bukatu eta artxibatzea ekarriko du berarekin.

3. Baina b) letraren kasuan, ordea, uko egitea Ebazpen bitartez onartuko da eta horretan, eskubidea iraungitzat emango da, data jakin batetik aurrera baja emango da, eta jarduketa guztiak bukatu eta artxibatzea erabakiko da.

4. Eta c) eta d) letretan aurreikusitako kasuetan, aldiz, foru dekretu honen 18. artikuluan jasotako baja emateko prozedura administratiboa ofizioz hasi ahal izango da.

17. artikulua. Aldi baterako egonaldi zerbitzurako eskubidea etetea.

Zerbitzuan onartua izan eta gero, erabiltzaileak foru dekretu honen 7. artikuluan aurreikusitako baldintza espezifikoren bat beteko ez balu, baina Gizarte Politikako Departamentuaren iritziz, ez-betetze hori 10. artikuluan aurreikusitako indarraldia baino epe laburragoan konpontzeko modukoa bada, zerbitzuaren erabiltzaile izaera behin-behinekoz etenda gera daiteke. Horrelakorik gertatuz gero, erabiltzaileak ezin izango du egonaldi-eskaera berririk egin, harik eta berriro aipatutako baldintza horiek betetzen dituela egiaztatzen den arte.

18. artikulua. Aldi baterako egonaldi zerbitzuan baja emateko prozedura.

1. 16. artikulua 1. puntuko c) eta d) letretan aurreikusitako kasuetan, administrazioak ofizioz hasi ahal izango du erabiltzaileari aitortutako plaza-eskubidea iraungitzat emateko eta aldi baterako egonaldi zerbitzuan baja emateko prozedura.

2. Behin prozedura abiarazita, eta baldintzak ez direla bete agerian jartzen duten edota egonaldi-eskubidearen iraungipena eta baja bultzatu duten arrazoiak agerian jartzen dituzten txostenetan oinarrituta, ez-betetze edo arrazoi horiek erabiltzaileari, edo horren legezko nahiz borondatezko ordezkariari edota izatezko zaintzaileari jakinaraziko zaizkio. Gainera, hamar egun balioduneko epea emango zaio bidezko alegazioak aurkezteko.

3. Aipatutako epea betetzean, Ezinduen eta Desgaituen Laguntzako Zerbitzuak bere irizpena eman ondoren, Ezinduen eta Desgaituen Laguntzako Zuzendaritza Nagusiak Ebazpena emango du, erabiltzaileak egoitza plaza bat aldi baterako erregimenean gozaten jarraitzeko zuen eskubidea iraungi egin dela eta interesdun horri aldi baterako egonaldi zerbitzuan baja eman zaiola aitortuz. Edota, bidezkoa denean, plaza horretarako eskubidea eta aldi baterako egonaldi zerbitzuan izena emanda jarraitzea berretsiko du.

2. ATALA. EGOITZA ZENTRO BATEAN ALDI BATERAKO EGONALDIA ESKATZEKO PROZEDURA

19. artikulua. Xedea.

Behin aldi baterako egonaldi zerbitzuan onartua izateko eskaera interesdunaren alde erabaki ondoren, aldi baterako egonaldi zehatza edo zehatzak arautzea da prozedura honen xedea, eskatzaileari aldi baterako egonaldi zerbitzuaren erabiltzaile-izaera emanda.

20. artikulua. Prozedura abiaraztea.

1. Eskaera:

a) Eskatzaileak, edo interesdunaren legezko edo borondatezko ordezkariak, edota izatezko zaintzaileak, halakorik izanez gero, eskatzailea erroldatua dagoen Udalerriko oinarrizko Gizarte Zerbitzuetako erregistroan aurkeztuko du aldi baterako egonaldia egiteko eskaera.

b) Eskatzailea ez bada aldi baterako egonaldi zerbitzuaren erabiltzaile gisa ageri, egonaldirako eskaera aldi baterako egonaldi zerbitzuan onartzeko eskaerarekin batera aurkeztu ahal izango da. Nolanahi ere, tramitazioa etenda geratuko da harik eta zerbitzuan onartua izateko prozedura ebatzi arte.

c) Egonaldirako eskaerak banakakoak edo anitzak izan daitezke, bizikidetz-unitate bakoitzeko gehienez ere 4 kide onartzuz.

2. Eskatutako egonaldiaren iraupena:

Eskatutako egonaldiaren iraupena, foru dekretu hau garatzeko zehazten diren mugek agintzen dutena izango da.

3. Betekizunak:

Ezinbestekoa izango da eskatzaileak aldi baterako egonaldi zerbitzuaren erabiltzaile-izaera onartua edukitzea. Egonaldirako eskaera aurkezteak, interesdunak egoera hori aitortzeko aintzat hartutako baldintzak betetzen jarraitzen duela adieraztea dakar berarekin.

Baldin eta zirkunstantziaren bat aldatu egin bada, aldaketa hori egonaldirako eskaeran adierazi beharko da; eta horren ondorioz, pertsona horrek aldi baterako egonaldi zerbitzuaren erabiltzaile izateko exijitutako baldintzak betetzen jarraitzen duen ala ez berretsi beharko du ofizioz Gizarte Politikako Departamentuak, edo bestela, aipatutako eskubidearen etendura edo iraungipena bultzatzen duen egoeran dagoela ziurtatu.

4. Lehentasunezko zentroa eta denboraldia:

Egonaldirako eskaeretan, egonaldia lehentasunez zein zentrotan egin nahi den eta baita haren ordezkari lehenezten diren beste bi zentro ere adierazteko aukera egongo da.

Era berean, eskaera bakoitzean, egonaldia lehenetsunez zein denboralditan egin nahi den eta haren ordeztu diren beste bi epealdi ere adierazteko aukera egongo da.

5. Esku-hartze Plana:

Zaintzen jarraipenak bermatzeko aparteko egonaldien kasuan, udaleko oinarrizko Gizarte Zerbitzuek esku-hartze plan bat aurkeztuko dute eskaerarekin batera. Eta plan horretan honakoak jasoko dira:

- a) Egonaldia egiteko arrazoiaren eta helburuen deskripzio xehatua.
- b) Aurreikusitako epea edo iraupena.
- c) Egonaldia bukatzen denerako aurreikusi den destinoa (ohiko ingurunera itzultzea edo egoitza baliabideari heltzea behin betiko).
- d) Aldi baterako egonaldian zehar gauzatuko diren ekintzen deskripzioa, aurrez egindako aurreikuspenak bete daitezzen ahalbidetzeko, eta ekintza horien arduradunak eta epeak ere adieraziz.

Dokumentu horrek arauzko txostenaren pareko balioa izango du, Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen 30/1992 Legeak, azaroaren 26koak, bere 82. eta 83. artikuluetan xedatutakoaren ondorioetarako. Horrela bada, espedientearen tramitazioa etenda geratuko da oinarrizko Gizarte Zerbitzuak aipatutako txostena egin arte.

6. Osasun-txostenak:

Zaintzen jarraipenak bermatzeko aparteko egonaldien kasuan, esparru sanitario eta soziosanitarioekin lotutako jarduketaren protokoloen inguruko osasun-txostenak aurkeztu beharko dituzte udaleko oinarrizko Gizarte Zerbitzuek; esate baterako, pertsonaren egoera egiaztatzen duten medikuaren alta-txostenak, eta txosten horietan interesdunak behar dituen laguntzak adieraziko dira, besteak beste. Informazio hori Osakidetzaren esku badago, ez da osasun-txosten horiek aurkeztu beharrik egongo, baldin eta informazio hori Osakidetzan kontsultatu eta eskatzeko baimena ematen badio eskatzaileak Gizarte Politikako Departamentuari.

7. Aurkezpena egiteko aurrerapen-epea:

Egonaldirako eskaerak, Gizarte Politikako Departamentuak foru dekretu hau garatzeko ematen duen araudian zehaztutako aurrerapenarekin aurkeztu beharko dira.

8. Gorabeheren eta aldaketen berri ematea:

Programatutako gorabeherak eta aldaketak 7 egun balioduneko aurrerapenarekin jakinaraziko dituzte gutxienez erabiltzaileek, edo horien legezko ordezkariak, borondatezko ordezkariak edota izatezko zaintzaileak, Gizarte Politikako Departamentuak une horretan erabilgarri dauden aukera eta baliabideen arabera kudea dezan esku artean daukan prozedura.

9. Epaia betetzeko egonaldiak:

Aldi baterako egonaldi zerbitzuan sartzea bultzatu duen arrazoia foru dekretu honetako I. Eranskinaren 2.2.1 puntuan aipatutako epai judizial bat betetzea izan baldin bada, egonaldia bete egingo da, betiere testu arautzaile honetan ezarritako araubidera egokituta ahal den neurrian

10. Eskaera osatu gabeak:

Eskaera osatu gabe aurkeztu bada edota aurreko artikuluan aipatutako dokumentu edo daturen bat falta dela antzematen bada, udaleko oinarrizko Gizarte Zerbitzuak edo, eskaera jada Gizarte Politikako Departamentuari helarazi baldin bazaio, Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen 30/1992 Legeak, azaroaren 26koak, 71.1 artikuluan ezarritakora joko da. Eta horrela, eskatzaileari hamar egun balioduneko epea emango zaio antzemandako akatsak zuzentzeko eta arauzko dokumentuak aurkezteko; era berean, agindutakoa bete ezean, eskaera ezetsizat joko dela ohartaraziko zaio, aipatutako 30/1992 Legeak bere 42. artikuluan aurreikusitako baldintzetan emango den ebazpenaren bitartez.

21. artikulua. Prozedura bideratzea.

1. Eskaera tramitatzeako onartzea.

Udaleko oinarrizko Gizarte Zerbitzuek Gizarte Politikako Departamentuari bidalitako eskabide irmoak soilik onartuko dira tramitatzeako.

2. Eskaera baloratzea.

Eskabidea Gizarte Politikako Departamentuan jasotzean, eskatzailearen egoera aztertuko da, ikuspegi guztietatik, aldi baterako egonaldi zerbitzuaren erabilizaile izateko exijitutako baldintza guztiak betetzen jarraitzen duela ziurtatzeko. Aldaketaren bat antzematen bada, ofizioz jardungo da, aldi baterako egonaldi zerbitzuaren erabilizailearen egoera berrikusteko; eta prozedura etenda geratuko da harik eta azterketa hori erabaki edo ebazten den arte.

3. Itxaron-zerrenda.

Gizarte Politikako Departamentuak itxaron-zerrenda erabiliko du aldi baterako egonaldi zerbitzuan plaza esleitzeko lehentasun-ordena ezartzeko; hau da, erabilizaile-izaera aitortu zaien eta, ondorioz, sartzeko eskubidea duten baina, eskabideen kopurua eskura dauden lekuak baino gehiago izateagatik, oraindik zerbitzuaz baliatzeko aukerarik izan ez duten eskatzaileen artean lehentasuna zehazteko.

Hiru itxaron-zerrenda izango dira: bata, 1. motako egonaldi eskaerei aplikatuko zaie, beste bat 2. motakoei, eta azkenekoa 3. motakoei, betiere foru dekretu honen I. Eranskinean jasotako sailkapenaren arabera. Zerrenda horietako bakoitzean, lehentasun-irizpideak hauek izango dira, handienetik txikienera:

a) 1. motako egonaldiak (atsedenerako egonaldi arruntak):

1.- Arrazoiak:

Eskatutako egonaldiaren arrazoiaren arabera, I. Eranskinean azaldutako tipologiai jarraituz, honako hurrenkera honetan:

1. 1.2 arrazoiak bultzatutakoak.

2. 1.1 arrazoiak bultzatutakoak.

2.- MBA maila:

Arrazoi beraren ondorio diren egonaldi-eskaerak, eskatzaileak indarrean dagoen mendekotasunaren balorazioan aitortua daukan mailaren arabera antolatuko dira, lehentasuna mailarik handiena egiaztatzen dutenei emanez.

3.- Urte naturalean zehar baliatutako egun-kopurua:

Arrazoi beraren ondorio diren egonaldi-eskaerak mendekotasun maila berarekin baloratutako pertsonenak direnean, eskaera aurkeztutako urte naturalean zehar edozein eratako aldi baterako egonaldi zerbitzuren batean egun gutxien baliatu dituen eskatzaileari emango zaio lehentasuna.

4.- Baremo sozialean lortutako puntuazioa:

Arrazoi beraren ondorio diren egonaldi-eskaerak mendekotasun-maila berarekin baloratutako pertsonenak direnean, eta pertsona horiek urte naturalean zehar aldi baterako egonaldi zerbitzuan egun-kopuru bera baliatu dutenean, foru dekretu honen III. Eranskinean aurreikusitako baremo sozialean lortutako puntuazioaren arabera emango zaie lehentasuna.

b) 2. motako egonaldiak (zainketen jarraipena bermatzeko aparteko egonaldiak):

1.- Eskatutako egonaldiaren arrazoiak:

Eskatutako egonaldiaren arrazoiaren arabera, I. Eranskinean azaldutako tipologiari jarraituz, honako hurrenkera honetan:

1. 2.2.1 arrazoiak eragindakoak.

2. 2.1.2 arrazoiak eragindakoak.

3. 2.1.1 arrazoiak eragindakoak.

4. 2.2.2 arrazoiak eragindakoak.

5. 2.1.3 arrazoiak eragindakoak.

2.- MBA maila:

Arrazoi beraren ondorio diren egonaldi-eskaerak, eskatzaileak indarrean dagoen mendekotasunaren balorazioan aitortua daukan mailaren arabera antolatuko dira, lehentasuna mailarik handiena egiaztatzen dutenei emanez.

3.- Baremo sozialean lortutako puntuazioa:

Arrazoi beraren ondorio diren egonaldi-eskaerak mendekotasun maila berarekin baloratutako pertsonenak direnean, foru dekretu honen III. Eranskinean aurreikusitako baremo sozialean lortutako puntuazioaren arabera emango zaie lehentasuna.

c) 3. motako egonaldiak (garapen edo aukera pertsonalekoak):

1.- Arrazoiak:

Eskatutako egonaldiaren arrazoiaren arabera, I. Eranskinean azaldutako tipologiari jarraituz, honako hurrenkera honetan:

1. 3.2 arrazoiak eragindakoak.

2. 3.1 arrazoiak eragindakoak.

2.- MBA maila:

Arrazoi beraren ondorio diren egonaldi-eskaerak, eskatzaileak indarrean dagoen mendekotasunaren balorazioan aitortua daukan mailaren arabera antolatuko dira, lehentasuna mailarik handiena egiaztatzen dutenei emanez.

3.- Urte naturalean zehar baliatutako egun-kopurua:

Arrazoi beraren ondorio diren egonaldi-eskaerak mendekotasun maila berarekin baloratutako pertsonenak direnean, eskaera aurkeztutako urte naturalean zehar aldi baterako egonaldi zerbitzuan egun gutxien baliatu dituen eskatzaileari emango zaio lehentasuna.

4.- Baremo sozialean lortutako puntuazioa:

Arrazoi beraren ondorio diren egonaldi-eskaerak mendekotasun maila berarekin baloratutako pertsonenak direnean, eta pertsona horiek urte naturalean zehar edozein eratako aldi baterako egonaldi zerbitzuren batean egun-kopuru bera baliatu dutenean, foru dekretu honen III. Eranskinean aurreikusitako baremo sozialean lortutako puntuazioaren arabera emango zaie lehentasuna.

d) Egonaldi mota eta itxaron-zerrenda guztientzako irizpide orokorrak:

- Eskatutako epealdian eskatzailearen profilari egokitzen zaion egoitza plaza izatearen edo ez izatearen baitan egongo dira irizpide horiek. Profil hori, foru dekretu honen 7.2 artikuluan eskatzailearen gaitasuna zehazteko aurreikusitako baliabide eta tresnak aplikatzearen emaitza izango da.
- Gipuzkoako Foru Aldundiko Gizarte Politikako Departamentuak, behar bezala arrazoitu eta azaldutako aparteko zirkunstantzien argitan, egonaldiak esleitzeko hurrenkera aldatzea erabaki dezake, eta hori espedientean jasota geratuko da.
- Atsedenerako aldi baterako egonaldien eskaera handia dagoen urte-garaietan, eskuragarri dauden plazen arabera esleitzeko dira zainketen jarraipena bermatzeko aparteko egonaldiak.
- Nolanahi ere, lehentasunezko kasuak alde batera lagata, eskaera aurkezteko datan edo eskaera onartu den unean, egoitza egonaldi iraunkorrerako tramite bidean plaza eskaerarik ez duten eskatzaileak lehenetsiko dira gainerako eskatzaileen aurretik.

22. artikulua. Prozedura ebaztea.

Eskatzailearen egoera aztertu ondoren eta, hala egokituz gero, arestian deskribatutako itxaron-zerrenden irizpideak aplikatu ostean, hala nola plazen erabilgarritasuna jakinik, Ezinduen eta Desgaituen Laguntzako Zuzendaritza Nagusiak ebazpena emango du, betiere Gizarte Politikako Departamentuko zerbitzu teknikoek bere irizpena eman ondoren. Ebazpen hori honelakoa izan daiteke:

- a) Egonaldia onartzekoa, baldin eta plazen erabilgarritasuna kontuan hartuta eta exijitutako betekizunak bete direla ikusita, eskatutako egonaldi zehatza egin badaiteke. Ebazpenean, erabiltzaileak eta, hala egokituz gero, laguntzaileak egin beharreko diru-ekarpena adieraziko da.
- b) Egonaldia ukatzekoa, baldin eta eskatutako egonaldi zehatza ezin bada eman, plazarik ez dagoelako edota zerbitzuan exijitutako betekizunak bete ez direlako. Dena den, eskaera ukatzeko arrazoiak azaldu egin beharko dira beti.
- c) Itxaron-zerrendan sartzekoa. Horrelakoetan, kasuan-kasuan egin beharreko diru-ekarpena zehaztuko da, bai erabiltzaileari dagokiona eta baita honen laguntzaileari dagokiona ere, halakorik izanez gero behintzat.

23. artikulua. Atzera egitea.

Ebazpena eman aurretik, prozeduraren edozein momentutan, eskatzaileak edo bere legezko nahiz borondatezko ordezkariak, edo izatezko zaintzaileak, halakorik denean, atzera egin dezake aldi baterako egonaldi zerbitzuan onartua izateko eskaeran. Atzera egite hori idatziz jakinaraziko da, edo bestela, legitimatua dagoen pertsona eskaera aurkeztu zen udaleko oinarrizko Gizarte Zerbitzuetan bertaratuta. Azken kasu horretan, kasuan kasuko funtzionarioak edo lan-kontratupekoak, bertaratzearen akta egingo du. Akta hori aipatutako pertsona horrek eta interesdunak sinatu beharko dute; edo bestela, interesdunaren legezko ordezkariak, borondatezko ordezkariak edota izatezko zaintzaileak.

3. ATALA. ERREKURTSO ADMINISTRATIBOAK

24. artikulua. Errekurtsio administratiboak.

Azaldutako prozedurak erabakitzen dituzten ebazpenen aurka, interesdunek Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen 30/1992 Legeak, azaroaren 26koak, bere 114. artikuluan aurreikusitako errekurtsioa jarri ahal izango dute.

III. KAPITULUA. EGONALDIEN KUDEAKETA

25. artikulua. Egonaldia egikaritzeko egoitzan sartu aurreko informazioa.

1. Erabiltzailea egoitzan sartu aurretik, edo sartzeko une berean, egoitza zentroko zuzendaritzak zentroko bizikidetzara arauen berri emango dio erabiltzaileari edo, hala egokituz gero, bere legezko nahiz borondatezko ordezkariari, edo izatezko zaintzaileari.

2. Edonola izanik ere, foru sareko edozein egoitza zentrotan sartze hutsak zentroko arauak onartu beharra ekarriko du beti erabiltzailearentzat.

26. artikulua. Esleitutako aldi baterako egonaldi zentroan sartzea.

1. Behin erabiltzaileari plaza bat esleituta, egonaldia onartzeko ebazpenean adierazitako datan sartu beharko du pertsona horrek egoitza zentroan.

2. Baldin eta aipatutako datan erabiltzailea ez bada egoitza zentroan sartzen, ez Gipuzkoako Foru Aldundiari eta ez zentroari lepora dakizkiekeen arrazoiengatik, eta interesdunak ez badu alde zuzenetik jakinarazi zentroan beranduago sartzeko asmoa, pertsona horrek aldi baterako egonaldiko erabiltzaile-izaerari eta esleitutako zentroan sartzeko duen eskubideari uko egin diela ulertuko da. Ondorioz, foru dekretu honen 28.4 artikuluan ezarritako erregimen ekonomikoa aplikatuko zaio, eta berari esleitutako plaza, berak hutsik utzi duena, itxaron-zerrendan sartua dagoen beste pertsona bati esleituko zaio berehala.

3. Interesdunak egonaldia beranduago hasteko bere asmoa jakinarazten badu, plaza hori gorde egiten zaiola ulertuko da, foru dekretu honetako 29. artikuluan araututakoari jarraituz.

27. artikulua. Aldi baterako egonaldian egindako jarduketak.

1. Zainketen jarraipenak bermatzeko aparteko egonaldietan Esku-hartze Plana eguneratzea:

Esku-hartze Planaren edukietakoren bat aldatu beharra ekar dezakeen edozein zirkunstantziaren berri izan bezain laster, aldaketa hori proposatu eta planari erantsiko zaio, betiere aurrez Gizarte Politikako Departamentuaren baimena eskuratuta.

Era berean, izaera arrunteko egonaldi moduan hasitakoak prozesuan zehar aparteko egonaldi bihurtzen badira, aipatutako Esku-hartze Plan hori inkorporatu beharko dute berehala, eta plan hori motibazio gisa eta proposamen tekniko gisa erabiliko da.

Desgaitasuna duten pertsonentzako egoitza zentroetan egindako egonaldien kasuan, egonaldia gertatzen den zentroko ardura duen erakundeak berak egin ahal izango du eguneratze hori, dekretu honen hirugarren xedapen iragankorrean ezarritakoarekin bat.

2. Irteerako destinoa behin betiko egoitza izango duten pertsonen aldi baterako egonaldiak:

Esku-hartze Planean aldi baterako egonaldia bukatzerakoan destinoa behin betiko egoitzaren baliabidea izango dela erabakitzen den bezain laster, egoitza plaza iraunkorra eskatu beharko da berehala. Adineko pertsonen kasuan, erroldatua dagoen udalerritari dagokion eskualdean proposatzen zaion lehen plaza hutsa onartu beharko du interesdunak. Desgaitasuna edo gaixotasun mentala duten pertsonen kasuan, berriz, proposatzen zaion eta bere ezaugarrietara egokitua dagoen lehen plaza hutsa onartu beharko du interesdunak.

aldin eta egonaldian zehar, hasiera batean ezarritako iraunaldia luzatu beharra gertatzen bada, Esku-hartze Plana eguneratu egin beharko da. Eguneratze horretan, aipatutako luzapenaren premia egiaztatu eta planteatutako premiei erantzuteko zenbatetsi den epe berria proposatuko da. Gipuzkoako Foru Aldundiko Gizarte Politikako Departamentuak proposamen horri erantzun

egin beharko dio, gorabehera gisa, artikuluko honen 4. apartatuan ezarritakoari jarraituz. Desgaitasuna duten pertsonentzako egoitza baliabideetan egindako egonaldien kasuan, berriz, eguneratze-lan horren ardura aldi baterako egonaldi zerbitzua ematen duen erakundeari dagokio, dekretu honen hirugarren xedapen iragankorrean ezarritakoari jarraituz.

3. Lankidetzaren sozio-sanitarioa:

Osasun-esparruarekin lankidetzarik handiena sustatuko da une oro, batez ere bi sistemen artean alta ondoko zainketak bermatzeko. Hori horrela, xede horretarako zehazten diren jarduketako protokoloak aplikatuko dira kasu bakoitzean.

4. Gorabeherak eta aldaketak kudeatzea:

Programatutako izaera duten data-aldaketei buruzko gorabeherak Gizarte Politikako Departamentuak soilik kudeatuko ditu, eskatzaileak horrela eskatuta, gutxienez 7 egun balioduneko aurretiaz jakinarazita, aldaketa horiek une horretan erabiltzeko moduan dauden aukeren arabera kudea ditzan.

28. artikulua. Uko egitea.

1. Baldin eta prozeduran erabiltzaile izaera aitortzen duen ebazpena eman bada, edota eskatzailea egoitza batean aldi baterako egonaldian sartzea onartu bada, edota erabiltzailea jada foru sarearen zentro batean sartua badago, erabiltzaileak berak edo, hala egokituz gero, bere legezko edo borondatezko ordezkariak edo izatezko zaintzaileak erabiltzaileari onartutako eskubideari uko egin ahal izango dio, Gizarte Politikako Departamentura idatzi bat bidalita, edo pertsona legitimatua udaleko oinarrizko Gizarte Zerbitzuetan bertaratuta. Azken kasu horretan, kasuan kasuko funtzionarioak edo lan-kontratupekoak bertaratzearen akta egingo du. Akta hori aipatutako pertsona horrek eta interesdunak sinatu beharko dute; edo bestela, interesdunaren legezko nahiz borondatezko ordezkariak edota izatezko zaintzaileak.

2. Era berean, uko egin dela ulertuko da halaber interesdunak egonaldian zehar izandako jarduketak kontuan hartuta egonaldiari uko egiten diola ondoriozta badaiteke, betiere zentroak jarduera horien berri behar den moduan eman baldin badu.

3. Egonaldiari uko egitea, honela sailkatuko da:

a) Bere norainokoaren arabera:

1. Erabateko uko egitea:

Uko egiteak baimendutako egonaldi osoari eragiten dionean eta, hortaz, egonaldia inola ere gertatu ez denean.

2. Uko egite partziala:

Halakotzat hartuko da, erabiltzaileak egonaldiaren azkeneko egun gisa finkatutako data baino lehen zentroa uzten duenean. Ez da onartuko, inola ere, uko egiteko asmoa jakinarazi den eguna baino lehenagoko ondorioak izan ditzakeen uko egiterik.

b) Zer-nolako aurrerapenarekin gertatzen den arabera:

1. Behar besteko aurrerapenaz egindako uko egitea:

- Erabateko uko egitearen kasuan, Gizarte Politikako Departamentuari egonaldia hasteko data baino 7 egun lehenago jakinarazitakoa izango da.
- Uko egite partzialen kasuan, guztiak ere behar besteko aurrerapenaz egindakotzat joko dira.

2. Behar besteko aurrerapenaz egin ez den uko egitea:

Halakotzat joko da aurreko puntuan adierazitako gutxieneko aurrerapenaz jakinarazi ez dena.

c) Uko egiteko arrazoien arabera:

1. Arrazoi erabakigarriak:

Uko egiteko arrazoi erabakigarritzat joko dira hurrengo egoera edo zirkunstantzia guztiak:

- Eskatzailearen heriotza.
- Eskatzailearen edo laguntzailearen ospitaleratzea.
- Gaixotasuna edo osasun-egoeran gertatutako bat-bateko aldaketa, egonaldia ez egitea gomendatzen duena; txosten medikoarekin egiaztatuko da.

- Salbuespen moduan, Gizarte Politikako Departamentuak beste hainbat arrazoi ere onar ditzake, betiere behar bezala egiaztatuak badaude.

2. Arrazoi ez erabakigarriak:

Halakotzat hartuko dira aurreko puntuan adierazitako arrazoiez bestelakoen ondoriozko uko egiteak.

4. Mendekotasuna, desgaitasuna eta nahasmendu psikikoa artatzeko zentroetako erabiltzaileek egin beharreko diru-ekarpena erregulatzeko indarrean dagoen foru araudiaren arabera finkatuko da uko egite kasu bakoitzari dagokion diru-ekarpena.

29. artikulua. Plaza gordetzea.

1. Baldin eta erabiltzaileak baimendutako dataz geroztik hasten badu egonaldia, edota baimendutako azken data baino lehen uzten badu egonaldia, plaza hori erreserbako erregimenean dagoela ulertuko da, berariaz uko egiten ez dion bitartean.

2. Plaza gordetzeak, berriro zentrora itzultzeko eta baimendutako azken data arte egonaldiaz gozatzeko eskubidea ematen du.

3. Mendekotasuna, desgaitasuna eta nahasmendu psikikoa artatzeko zentroetako erabiltzaileek egin beharreko diru-ekarpena erregulatzeko indarrean dagoen foru araudiaren arabera finkatuko da plaza gordeta edukitzen den bitartean egin beharreko diru-ekarpenaren zenbatekoa.

30. artikulua. Egonaldia iraungitzea.

1. Baimendutako aldi baterako egonaldiaz baliatzeko eskubidea honako kasu hauetan iraungiko da:

- a. Onartutako egonaldiaren iraupena amaitzean.
- b. Erabiltzailea hiltzean.
- c. Egonaldiari berariaz uko egitean, idatziz edota udaleko oinarrizko gizarte zerbitzuan bertaratuta.
- d. Foru dekretu honen 7. artikuluan exijitutako baldintzaren bat galtzean.

2. Aurreko apartatuko a) eta b) letren kasuan, egonaldiaren iraupena bukatzeak edota interesdunaren heriotzaren berri izateak, egonaldiari buruzko jarduketak bukatu eta artxibatzea ekarriko du berarekin.

3. 1. apartatuko c) letraren kasuan, Ebazpenaren ondoriozko uko egitea onartu egingo da; horrelakoetan, ebazpen horretan eskubidea iraungitzat emango da, data jakin batetik aurrera baja emango da, eta egonaldiari buruzko jarduketa guztiak bukatu eta artxibatzea erabakiko da.

4. Eta 1. apartatuko d) letraren kasuan, ofizioz hasiko da aldi baterako egonaldi zerbitzuaren erabiltzaile-izaera eteteko edo iraungitzeko prozedura administratiboa.

31. artikulua. Erabiltzailearen eta zaintzaile nagusiaren konpromisoa.

1. Atsedenerako egonaldi arrunten kasuan, bai erabiltzaileak nahiz laguntzaileak, halakorik izanez gero, eta baita zaintzaile nagusiak ere, onartutako egonaldiaren iraupena bukatzean egoitza zentroa uzteko eta berriro ere bidezkoak diren zaintzak ematen hasteko konpromisoa hartuko dute, hurrenez hurren, euren gain.

2. Baldin eta aldi baterako egonaldia bukatzean, zaintzaile nagusia ez bada zerbitzuaren erabiltzailearen zaintzaz arduratzen, eta jokabide hori bultzatu duen ezintasun materialaren arrazoiak Gizarte Politikako Departamentuko zerbitzu teknikoen aurrean behar bezala egiaztatzen ez badira, Gipuzkoako Foru Aldundiak dagozkion tramiteak abiaraziko ditu mendekotasun egoeran dagoen adineko pertsona horren eskubideak bermatzeko, eta jokabide horrek ekar ditzakeen erantzukizunak exijitzeko.

IV. KAPITULUA. BATERAGARRITASUNAK ETA BATERAEZINTASUNAK

32. artikulua. Aldi berean prestazio ekonomikoak jasotzea.

Mendekotasun egoera aitortzetik etorritako prestazioei dagokienez, aldi baterako egonaldia eskatzeko momentuan prestazio horiek erregulatzen dituen araudian xedatutakoari jarraituko zaio.

33. artikulua. Zerbitzuen aldiberekotasuna.

1.- Eguneko zentroa:

Foru dekretu honetan erregulatu den egoitza zentroko aldi baterako egonaldia bateragarria izango da eguneko zentroarekin. Bi egoera hauek bereiziko dira:

a) Egoitza zentroa eta eguneko zentroa bat bera izatea: aldi baterako egonaldia eta eguneko zentroko zerbitzua zentro berean ematen direnean gertatzen da hori.

b) Egoitza zentroa eta eguneko zentroa desberdinak izatea: bi egonaldiak zentro desberdinetan egitean gertatzen da. Nolanahi ere, zerbitzuaren erabiltzaileari edo honen ordezkariari dagokio egin beharreko aldaketak (garraioari dagozkionak, batez ere) eguneko zentroarekin adostea.

2.- Intentsitate txiki-ertaineko bizileku iraunkorra emateko zerbitzuak:

Bi zerbitzuak bateragarriak direla eta, interesduna aldi baterako egonaldiaren erabiltzailea den bitartean, jatorrizko zerbitzuan plaza gorde egingo zaiola ulertuko da, baldin eta plaza horretarako itzuliko dela aurreikusi bada behintzat.

Jatorrizko bizileku-zerbitzuak udalarenak badira, arestian adierazitakoa aplikatuko da, udal araudiak ezarritakoa baldintzatu gabe.

3.- Udalak emandako Etxeko Laguntza Zerbitzua:

Etxeko Laguntza Zerbitzua erregulatzen duen udal araudiak ezarritakoa baldintzatu gabe, bi zerbitzuak bateraezinak direla eta, aldi baterako egonaldiak dirauen bitartean, Etxeko Laguntza Zerbitzua eten egingo dela ulertuko da.

V. KAPITULUA. ERABILTZAILIEN ESKUBIDEAK ETA BETEBEHARRAK

34. artikulua. Egoitza zentroetan aldi baterako egonaldi zerbitzuak erabiltzen dituzten pertsonen eskubideak.

Mendekotasuna duten adineko pertsonentzako foru aldundiak prestatutako egoitza zerbitzuaren erabiltzaileek, zerbitzuaren prestazioa jasotzeko eskubidea izango dute, mendekotasun egoeran dauden adineko pertsonentzako egoitza zerbitzuak hitzartzeko bete beharreko baldintzak ezartzen dituen 38/2007 Foru Dekretuak, maiatzaren 22koak, ezarritakoaren arabera. Era berean, eskubidea izango dute, oro har, Euskal Autonomia Erkidegoko gizarte zerbitzuen erabiltzaile eta profesionalen eskubide eta betebeharren Gutuna eta iradokizun eta kexen araubidea onartzen dituen Eusko Jaurlaritzaren 64/2004 Dekretuan, apirilaren 6koan, adierazitako prestazio guztiak jasotzeko. Horiek guztiak aplikagarri izango zaizkie baita aldi baterako egonaldi zerbitzua erabiltzen duten desgaitu guztiei.

35. artikulua. Egoitza zentroetan aldi baterako egonaldi zerbitzuak erabiltzen dituzten pertsonen betebeharrak.

1. Hauek izango dira mendekotasuna duten adineko pertsonentzako aldi baterako egonaldi zerbitzua erabiltzen duten pertsonen betebeharrak: adineko pertsonentzako egoitzetako gizarte zerbitzuei buruzko 41/1998 Dekretuan, martxoaren 10ekoan, jasotakoak, batetik, eta, oro har, Euskal Autonomia Erkidegoko gizarte zerbitzuen erabiltzaile eta profesionalen eskubide eta betebeharren Gutuna, eta iradokizunen eta kexen araubidea onartzen dituen Eusko Jaurlaritzaren 64/2004 Dekretuan, apirilaren 6koan, jasotakoak; azkeneko horiek desgaitasuna duten erabiltzaileei ere aplikatzekoak dira.

2. Era berean, eta izaera espezifikoaz, erabiltzaileak edo honen legezko nahiz borondatezko ordezkariak edota izatezko zaintzaileak, halakorik izanez gero, aldi baterako egonaldi zerbitzuan onartua izateko eskaera aurkeztu ondoren, nahitaez jakinarazi egin beharko du zerbitzuan sartzeko eskubidean edo egin beharreko diru-ekarpenaren zenbatekoan eragin dezakeen aldaketa oro. Eta jakinarazpen hori gehienez ere 15 egun balioduneko epean egingo du, aipatutako aldaketa gertatzen denetik hasita.

36. artikulua. Prezio publikoa ordaintzeko obligazioa.

Egoitzetako foru zerbitzua aldi baterako egonaldirako erabiltzen duten pertsonak eta horien laguntzaileak, halakorik izanez gero, kasuan kasuko prezio publikoa ordaintzera behartuak egongo dira, foru dekretu honetan edota berau erregulatzeko foru araudi espezifikoan ezarritako baldintzetan.

Xedapen gehigarriak

Lehendabizikoa. Aplikatuko den araudia.

Aldi baterako egonaldien egoitzetako foru zerbitzu publikoan sartu eta erabili ahal izateko prozedura administratiboa foru dekretu honetan xedatutakoak erregulatuko du, Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen 30/1992 Legeak, azaroaren 26koak, ezarritakoa osagarri gisa aplikatzeko aukera baztertu gabe.

Bigarrena. Araudia garatzea.

Gizarte Politikako Departamentuko foru diputatuari ahalmena ematen zaio foru dekretu hau behar bezala aplikatzeko eta garatzeko beharrezkoak diren ekintzak emateko.

Hirugarrena. Mendekotasun egoera onartua izateko betebeharraren salbuespena.

Foru dekretu honen 7.1.c) artikulua aipatzen duen mendekotasun egoeran dagoen pertsonaren balorazio-graduaren betebeharraren ondorioetarako, onartutako 0 graduaren balorazioa duten pertsonak zerbitzu hauetara sartzeko aukera izango dute salbuespen moduan, baldin eta eskumena duen zerbitzu teknikoak uste badu zerbitzu honek erabiltzaileei mesede egin diezaikeela edo horien zaintzak bermatzeko beharrezkoa dela.

Laugarrena. Egoerak onartzea genero berdintasunaren ikuspegitik.

Mendekotasun egoeraren onarpenaren ondoriozko laguntzei buruzko araudiak xedatutako eran, familia ingurunean zaintza eta arreta eskaintzen duten pertsona guztien egoerak onartzeko ahalegina egingo da, pertsona horiek senitartekoak nahiz laguntzaile hutsak izan, zaintzaile horiei atsedena hartzeko eta ongizatea hobetzeko aukerak eskaintzeko, eta era horretan genero berdintasuna bultzatzeko.

Xedapen iragankorrak

Lehendabizikoa. Foru dekretu hau indarrean jartzeko unean gozaten ari diren aldi baterako egonaldiak, aurrez indarrean dagoen araudiaren arabera erregulatuko dira onartutako egonaldiaren iraupena amaitu arte.

Bigarrena. Foru dekretu hau onartu aurretik tramitatzen hasiak diren eta foru dekretu hau indarrean jartzen den egunean oraindik erabaki gabe dauden eskaerak, foru dekretu honetan ezarritakoari jarraituz tramitatu eta erabakiko dira.

Hirugarrena. Desgaitasuna duten pertsonentzako zentroetan aldi baterako egonaldien zerbitzua Gipuzkoako Foru Aldundiarekin itundutako hitzarmen partikularren esparruan ematen duten erakundeak, hala nola Gipuzkoako Foru Aldundiaren Erakunde Autonomoa den Uliazpi Fundazioak, denboraldi iragankor bat izango dute foru dekretu honetan ezarritakora moldatzeko. Inplikaturako instituzio eta erakundeetako langileen artean prozedura ezartzeko dauden posibilitateek, batetik, eta horren kudeaketarako beharrezkoak diren azpiegitura teknologikoek, bestetik, baldintzatuko dute denboraldi iragankor hori.

Bien bitartean, aldi baterako egonaldien kudeaketa pixkanaka dekretu honetara egokitzen joateko ahalegina egingo da:

-Aurreneko fasean, egonaldien eskaerak erakunde horiek kudeatuko lituzketen arren, betiere kasuan kasuko hitzarmen edo arau erregulatzaileretan ezarritakoaren bidetik horien berri

emanez, zerbitzurako sarrera edo irispidea oinarrizko gizarte zerbitzuetatik kudeatzen hasteko ahalegina egin beharko litzateke, dekretu honetako II. kapituluko lehenengo atalean ezarritakoarekin bat.

-Hurrengo fase batean, egonaldien eskaeren kudeaketa ere sartuko litzateke, dekretu honetako II. kapituluko bigarren atalean ezarritakoarekin bat, baina kudeaketa erakundeek egingo lukete, oinarrizko gizarte zerbitzuek egin ordez.

Eta azkenik, egonaldi horien eskaeren kudeaketa erabat oinarrizko gizarte zerbitzuen gain uzteko aukera baloratuko litzateke.

Laugarrena. III. Eranskinean zehaztutako baremo sozialaren puntuazioaren ondorioetarako, aipatu Eranskin horretan definitutako txosten eta baremo sozialaren bertsioa aplikatuko dira hasiera batean. Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemak gizarte diagnostikoa egiteko erabiltzen duen tresnara egokituko du puntuazio hori Gizarte Politikako Departamentuak. Tresna hori Gizarte Zerbitzuetako Euskal Sistemaren Fitxa Sozialari buruzko eta Gizarte Zerbitzuetako Euskal Sistemaren gizarte diagnostikoa egiteko tresnari buruzko 353/2013 Dekretuan, maiatzaren 28koan onartu eta 2013ko ekainaren 26ko EHAAAn argitaratu zen, foru dekretu hau indarrean sartu zenetik urtebeteko epearen barruan hain zuzen ere.

Xedapen indargabetzaile bakarra

Indargabetuta geratzen dira foru dekretu honetan ezarritakoaren aurkakoak diren lerrun berdineko edo txikiagoko xedapen guztiak. Bereziki indargabetuta geratzen dira beren kargura mendekotasuna duten adineko pertsonak dituzten familiei laguntzeko "Sendian" programa onartzen duen 29/2008 Foru Dekretuak, apirilaren 29koak, aurreikusitako egonaldien erregulazioa (erabiltzaileen diru-ekarpenak arautzen duen 3. artikulua izan ezik); beren kargura mendekotasuna duten adineko pertsonak dituzten familiei laguntzeko Sendian Programa onartzen duen 72/2000 Foru Dekretuak, uztailaren 18koak, aurreikusitako "atseden luzearen" erregulazioa.

Azken xedapena

Foru dekretu hau Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzen den egunaren biharamunean jarriko da indarrean.

I. ERANSKINA

ALDI BATERAKO EGONALDIEN TIPOLOGIA EGOITZA ZENTROETAN

EGONALDI MOTA		ARRAZOIA	DESTINOA AMAIERAN
ATSEDENEKOA	1.1. IRAUPEN LABURREKOA (SENDIAN)	1.1.1.- Ohiko pertsona zaintzailearen atsedenaldia, ezinbestekoa baitu atsedeen hartzea.	Ohiko ingurunea.
	1.2 IRAUPEN ERTAIN / LUZEKOA	1.2.1.- Pertsona zaintzailearen atsedenaldia / oporraldiak.	
		1.2.2.- Pertsona zaintzailearen aldi baterako absentzia programatua, hasierako eta bukaerako datan, lan edo familia-arazoak direla tarteko.	
		1.2.3.- Mendekotasun egoeran edo desgaitua dagoen adineko pertsonaren ohiko ingurunean irisgarritasun eta/edo egokitzeneko lanak egitea.	
ALTA ONDOKO ZAINKETAK BERMATZEKO APARTEKO	2.1. EGOERAREN BAT-BATEKO ALDAKETA	2.1.1.- Mendekotasun egoeran edo desgaitua dagoen adineko pertsonak behar duen zaintza areagotzea: ohiko zaintzaileek ezin dituzte bete mendekotasun egoeran gertatutako bat-bateko aldaketak eragindako arreta premiak.	Ohiko ingurunea edo behin betiko egoitza-baliabidea.

EGONALDIAK		2.1.2.- Ohiko zaintzaileak ezin du adinekoa zaintzen jarraitu, bere arazo propioak direla tarteko: osasun-arazoak, beste senitarteko batzuk –lehen edo bigarren graduak odolkidetasunez, ahaidetasunez edo adopzioz– zaindu beharra, lan-arrazoiak, heriotza, eta beste.	Ohiko ingurunea edo behin betiko egoitza-baliabidea.
		2.1.3.- Mendekotasun egoeran edo desgaitua dagoen adineko pertsona osasun-sare espezializatuan artatzen dute eta, alta hartzean, ohiko bizilekuan ez du laguntza egituraturik, ez eta plazarik ere behin betiko egoitzan.	Ohiko ingurunea edo behin betiko egoitza-baliabidea
	2.2. BALIABIDE EGONKOR BATERANZKO IRAGAPENA	2.2.1.- Mendekotasun egoeran edo desgaitua dagoen adineko pertsonak egoitza-baliabide batean sartu behar du, epaileak hala aginduta, eta zein egoitzatara bidali jakiteko balorazio-prozesuan dago.	Behin betiko egoitza-baliabidea.
		2.2.2.- Mendekotasun egoeran edo desgaitua dagoen adineko pertsona ezin da baloratu MBAren arabera, bere osasun-egoera ez delako egonkorra edo behar duen baliabidean sartzeko baldintzak betetzen ez dituelako.	Behin betiko egoitza-baliabidea edo ohiko ingurunea.
AUKERA PERTSONALEKOAK	3.1. IRAUPEN LABURREKOA.	3.1.1.- Bere bizi-planaren barruan sartua dagoen garapen pertsonalerako. 3.1.2.- Bere ohiko inguruneak behar bezala estaltzen ez dizkion premiak asetzeko.	

3.2. IRAUPEN ERTAIN /
LUZEKOA

3.2.1.- Bere bizi-planaren barruan sartua dagoen garapen pertsonalerako.

3.2.2.- Bere ohiko inguruneak behar bezala estaltzen ez dizkion premiak asetzeko.

II. ERANSKINA

ALDI BATERAKO EGONALDI ZERBITZUAN ONARTUA IZATEKO ESKAERAREKIN BATERA AURKEZTU BEHARREKO DOKUMENTAZIOA

Datu pertsonalak egiaztatzea:

- a) Indarrean dagoen NANaren fotokopia edo, horrelakorik ez bada, pertsona eskatzailearen, bere legezko nahiz borondatezko ordezkariaren edo izatezko zaintzailearen nortasuna egiaztatzen duen agiriren bat, baldin eta agiri hori lehendik ere Gipuzkoako Foru Aldundiko Gizarte Politikako Departamentuaren esku ez badago behintzat.
- b) Foru dekretu honen 9. artikuluan definitutako bizikidetzaren unitateko kide bakoitzaren NANaren fotokopia edo, horrelakorik ez bada, bakoitzaren nortasuna egiaztatzen duen agiriren bat, baldin eta agiri hori lehendik ere Gipuzkoako Foru Aldundiko Gizarte Politikako Departamentuaren esku ez badago behintzat.
- c) Laguntzailearen eta baita bizikidetzaren unitatea osatzen duen horren kideen NANaren fotokopia, baldin eta beste bizikidetzaren unitate batekoa bada.
- d) Eskatzaileak egoitzan sartzea bere borondatez onartzen duela egiaztatzen duen agiria, foru dekretu hau garatzeko araudian xede horretarako aurreikusitako ereduaren arabera egina.
- e) Eskatzailea legez ezgaitua badago, pertsona ezgaitu horren izenean eskaera aurkeztu duen pertsonari dagokion legezko ordezkari bat egiaztatzen duen agiria, baldin eta agiri hori lehendik ere Gipuzkoako Foru Aldundiko Gizarte Politikako Departamentuaren esku ez badago behintzat.
- f) Interesdunak borondatezko ordezkari bat edo izatezko zaintzaile bat izanez gero, izaera hori egiaztatzea egin behar da Gipuzkoako Foru Aldundiko Gizarte Politikako Departamentuko Borondatezko Ordezkarien Errolda arautzen duen 86/2013 Foru Agindua, urtarrilaren 22koak, xede horri begira indarrean daukan araudian ezarritako moduan.
- g) Biztanleen Udal Erroldaren arabera eskatzailearen helbidean inskribatuak dauden pertsonen ziurtagiria, baldin eta Gizarte Politikako Departamentuak ez badauka aurrez sinatuta egoitzan sartzeko hitzarmenik.

Egoera ekonomikoa egiaztatzea.

- h) Mendekotasuna, desgaitasuna eta nahasmendu psikikoa artatzeko zentroetako erabiltzaileek egin beharreko diru-ekarpena erregulatzeko indarrean dagoen foru araudiaren arabera egiaztatuko da.

Ordainketa helbideratzea.

- i) Egoitzan aldi baterako egonaldia egitearen prezio publikoaren ordainketa bankuan helbideratua dagoela egiaztatzen duen agiria. Ordainketa bakarra egingo da, interesdunak laguntzailea izanda ere.

Zaintzarik ez duela behar egiaztatzea.

- j) Eskatzailearen zaintzaileen osasuneko, laneko edo beste edozein arlotako egoera egiaztatzen duten agiriak aurkeztu beharko dira, baldin eta aldi baterako egonaldia bultzatu duen egoera frogatzeko edota larrialdia justifikatzeko erabakigarriak badira.

Balorazio soziala:

- k) Balorazio soziala: foru dekretu honen III. Eranskinean zehaztutako ereduaren arabera.

III. ERANSKINA.- BALORAZIO SOZIALA ETA BAREMOA.

1.- PRONOSTIKO SOZIALA (ez du punturik ematen)

Aldi baterako egonaldia amaitzean egin daitekeen aurreikuspena (aukera bakarra):

- a) Bere bizilekura itzultzea laguntzarik GABE

- b) Bere bizilekura itzultzea laguntza ETA GUZTI (adierazi zein edo zeintzuk diren):
 - EELZ (etxez etxeko laguntza-zerbitzua)

 - Eguneko zentroa

 - Laguntzako produktuak

 - Prestazio ekonomikoak

 - Sendian programa

- c) Egoitza batean ingresatzea

- d) Baliabide pribatuak (egoitza zentroa barne hartuta)

- e) Epe jakin batean erabakitzekoa:
 - 1 hilabete

 - 2 hilabete

 - 3 hilabete

2.- EGOERA SOZIO-FAMILIARRA (32,0 puntu arte)

Etxean zaintzak hartzeko gaitasuna	Bai	Ez
2. maila arterainoko familiartekoak edukitzea	1,0	0,0
Zaintzaile formala egotea	1,0	0,0
Zaintzaile informala egotea	1,0	0,0
Zainketak emateko norbait egotea	1,0	0,0
PUNTUAZIOA, GUZTIRA	4,0	0,0

Zaintzak jasotzeko bermea	Egokia	Eskasa	Oso eskasa
Familia barruko harremana	4,0	2,0	0,0
Bizikidetzaren antolamendua:			
Elikadura	4,0	2,0	0,0
Higiene pertsonala	4,0	2,0	0,0

Administrazio ekonomikoa	4,0	2,0	0,0
Eginkizunen banaketa	4,0	2,0	0,0
Botikak ematea	4,0	2,0	0,0
Zaintzen erantzukizuna edo ardura	4,0	2,0	0,0
PUNTUAZIOA, GUZTIRA	28,0	14,0	0,0

3.- ETXEBIZITZA (17 puntu arte)

Etxebizitarik ba al du?	Bai	Ez
Etxebizitarik ba al du?	1,0	0,0
PUNTUAZIOA, GUZTIRA	1,0	0,0

Etxebizitzaren ezaugarriak	Egokia	Eskasa	Oso eskasa
Bizigarritasun-baldintzak	4,0	2,0	0,0

Barrera edo hesiak			
Barrukoak	4,0	2,0	0,0
Kanpokoak	4,0	2,0	0,0
Kokapen geografikoa	4,0	2,0	0,0
PUNTUAZIOA, GUZTIRA	16,0	8,0	0,0

4.- EGOERA EKONOMIKOA (1,0 puntu arte)

Gaitasun ekonomikorik ba al du	Bai	Ez
Behar adinako gaitasun ekonomikorik ba al du?	1,0	0,0
PUNTUAZIOA, GUZTIRA	1,0	0,0